

17/05 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, Presidentea
Xabier Aizpurua
Ana Marta Iriarte
Juan Carlos Jauregui
Mikel Pagola
Mari Tere Ojanguren
Ismael Redondo
Antxon Rodríguez
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2017ko maiatzaren 25eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena dekretu proiektu honi buruz: **dekretu proiektua, interes publikokotzat jotzen duena bateragarria izatea arte-irakaskuntzak irakastea eta irakaskuntzaren edo kulturaren arloko sektore publikoan beste lanpostu bat edukitzea.**

I. AURREKARIAK

Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Legeak (abenduaren 26koa) langile horien bateraezintasunaren erregimen orokorra arautzen du, eta haren hirugarren artikuluan aipatzen du autonomia-erkidegoetako gobernu-organoek, dagokien konpetentzia-arloan, bigarren jarduera bat gauzatzearen bateragarritasuna aitortu ahalko dutela, hori interes publikokoa dela deklaratu ondoren. Bigarren lanpostuari dagokion jarduera lan-erregimenaren barruan baino ezingo da gauzatu, denbora partzialean eta iraupen jakinarekin, eta lan-arloko legeriak ezarritako baldintzetan.

Gaur egun ez dago araudi autonomikorik sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruz.

Uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak, unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan baldintzak erregulatzeko Akordioa onartzen duenak, bere 64. artikuluan aipatzen du bateraezintasun erregimena, eta bertan jasota dago akordioa sinatzen duten alderdiek konpromisoa hartu zutela, interes publikokoa den kasuetan, formulak aztertzeko eta formula horien bidez onartzeko jardun profesionala eta gure hezkuntza-sisteman irakasle izatea bateragarri direla, batik bat, musika irakaskuntzen esparruan edo espezialitateetan, non hornikuntza mekanismo arruntek ez baitute bermatzen profesional egokiak edukitzea. Bestalde, «Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako» hitzarmen kolektiboaren 55. artikulua ere konpromiso bera jasotzen du.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek lau artikulua eta bi azken xedapen ditu:

Lehen artikulua adierazten du interes publikokoa dela bateragarri egitea Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetan arte-irakaskuntzak irakastea eta irakaskuntzaren edo kulturaren arloko sektore publikoan beste lanpostu bat edukitzea, betiere, azaldutako kasu zehatzetan.

2. artikuluan zehazten dira bateragarritasuna baimentzeko baldintzak, lanpostuari edo jarduerari dagokienean: gehienezko lanaldia, lan-erregimena, lanaldi partzialekoa izatea eta ikasturte bakarrerako izatea.

3. artikuluan ezartzen da bateragarritasuna eskatzeko prozedura.

4. artikulua dio ez zaiela bateragarritasunik aplikatuko guztiz edo partzialki liberatuta daudenei eta lanaldi murrizketa dutenei.

Azken lehen xedapenak baimena ematen du araudia garatzeko eta bigarrenak indarrean noiz sartuko den zehazten du.

III. BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektu honen helburua da interes publikokotzat jo dadila arte-irakaskuntzan jarduteko bateragarritasuna eta sektore publikoan irakaskuntza- edo kultura-arloan bigarren lanpostu edo jarduera bat egiteko aukera.

Zioen azalpenean justifikatzen da zergatik den beharrezkoa arau hau:

- Beren funtzioak lanaldi murriztuko lanpostuetan garatzen dituzten irakasle horietako batzuk beren lanaldia osatu nahi dute Tokiko Administrazioaren menpeko titulartasun publikoko musika eskoletan eta kontserbatorioetan.
- Udal titulartasuneko musika eskoletan eta kontserbatorioetan horrelako ikasketak egiteko eskaera etengabe ari da handitzen.
- Ehunekotan, kolektibo murrizt bateko kide dira irakaskuntzaren arloaren barruan; izan ere, irakasten dituzten espezialitateetan langile falta dago, kualifikazio-maila eta espezifikotasuna direla-eta.

- Azkenik, komeni da jarduera profesionala eta irakaskuntza jarduera lotzea, irakasleek beren lanbidea garatu dezaten dagozkien berme legal guztiekin.

Batzorde Iraunkorrek ulertzen ditu azaldutako arrazoiak, eta ados dago irakasle horiei beren lanaldia osatzeko aukera ematearekin, bai eta jardun profesionalarekin bateragarri egitearekin. Beraz, Dekretu proiektu honen aldeko iritzia ematen du.

Halere, gogoeta bat egin nahi dugu bigarren mailako jarduerarentzat proposatzen den gehienezko lanaldiari buruz.

2. artikulua dio lanaldia gehienez 15 ordukoa izango dela astean, eta 175 ordukoa ikasturtean, oinarriztat harturik –memorian azaltzen den bezala-, lanaldi osoa 30 ordukoa dela astean, eta 35 astekoa ikasturtean.

Horrelako irakaskuntzen ikasturte hasierako Ebazpenek diote urteko lanaldia 1492 ordukoa dela; horietatik 30 zentzoko dedikazio arrunteko orduak dira, 23 ohiko egonaldiei dagozkie, eta gainerako orduak zentrorako zeharkako dedikaziokoak dira. Horrekin batera orobat jasotzen da lanaldi erdiko eta lanaldi hereneko murrizketen lanaldia. Nolanahi ere, 35 ikastorduak ikasleen ordutegiari dagozkio, eta ez irakasleentzako.

Horregatik, arauaren helburuetako bat bada irakasleek aukera izan dezatela beren lanaldia osatzeko, eskas samarra iruditzen zaigu urteko 175 orduko muga jartzea –proposatzen den bezala-, eta ezabatzea proposatzen dugu.

Asteko 15 orduko kopuruari dagokionez, ulertzen dugu komeni dela muga bat jartzea, bermatzeko irakaskuntza kalitatezko baldintzetan ematen dela. Beste aukera bat izan liteke adieraztea bi jardueren baturak ezin duela gainditu lanaldi globala.



Azkenik, 3. artikulua haxe dio: *“Aurreko paragrafoan adierazitako bateragarritasun-baimena interes publikoaren arabera egingo da, eta bateraezintasun-araudiaren gainerako baldintzak bete beharko ditu”*. Halere, uste dugu egokiagoa dela hori baldintzei buruzko 2. artikuluan sartzea eta komeni dela erreferentzia egitea ordainsarien mugen baimena baldintzatzen duen 53/1984 Legeko zazpigarren artikuluari.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2017ko maiatzaren 26an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA